# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 4708

*EBAZPENA, 2012ko urriaren 4koa, Segurtasuneko sailburuordearena, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko prozeduran –2012ko ekainaren 22ko Ebazpenaz deitutakoan–, behin betiko atxikipenak erabakitzeko Ebazpena Gurenet atarian noiz paratuko den iragartzeko dena.*

Segurtasuneko sailburuordearen 2012ko uztailaren 22ko Ebazpenaren bidez, onartu eta argitaratu zen Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia. Bada, ebazpen horren seigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriaz, eta azaroaren 23ko 303/2010 Dekretuaz aldatutako abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuaz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2012ko urriaren 5ean, Segurtasuneko sailburuordearen 2012ko urriaren 4ko Ebazpena, Gurenet atarian jarriko dela aditzera ematea. Ebazpen horren bitartez, 2012ko ekainaren 22ko Ebazpenaz deitutako prozeduran (EHAAren 130. zk., uztailaren 4koa), Ertzaintzan izendapen askeko sistemaz betetzeko lanpostuk behin betiko esleitzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 4a.

Segurtasuneko sailburuordea,
MIGUEL ÁNGEL BUEN LACAMBRA.